

Zorionak hona hurbildu zareten guztioi! Ez dugu amore eman!



Hezkuntza lege-proiektu honi gure ezezko borobilena adierazteko bildu gara gaur hemen berriro ere, onartu nahi duten hezkuntza-lege hau ez delako euskal eskola publikoak behar duena, bera sendotu ordez ahuldu egiten duelako.

Arrazoi ugari dauzkagu Euskal Eskola Publikoaren alde egoteko:

- Eskola publikoa hezkuntza eskubidea bermatzen duen sare bakarra da; **aukera berdintasunaren alde** egiten du; egoera desorekatuen **orekatzaile** da; **aniztasuna** du ikur, **inklusiboa** da, **integratzailea** eta unibertsala izateko bokazioa du.
- Euskal eskola publikoak **euskara** du ardatz, eta ikasle gehien euskaldundu duen sarea da.
- Eskola publikoa eskola **laikoa** da.
- Eskola publikoa **gertuko** eskola da, **Km 0**-koa, garraio beharrik ez duena.

Labur esanda, euskal eskola publikoa **denona eta denontzat da**.

Orain, hemen, **gure ezezkoa** adierazi nahi diogu **Lege Aurreproiektu honi**, ondoko arrazoiengatik.

- Lege honek **ez du eskola publikoa hezkuntza sistemaren muinean kokatzen. Publiko-pribatu sistema duala betikotu** nahi du, *Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publiko* asmatu berri baten bidez. Sare pribatua eta publikoa berdindu nahi dituzte, baina denok dakigu biak guztiz desberdinak direla.
- **Lege honek ez du eskola publikoa lehenesten.** Pribatuari %100eko finantzazioa emango dio, eskola publikoa babestu, hornitu eta hegemoniko bihurtu beharrean. Eskola publikoak plangintza estrategiko bat behar du, sistemaren erreferentziazko sare nagusi bihurtu dadin.
- **Lege honek ez du umeen euskalduntzea bermatzen.** Gaur egungo hizkuntza-ereduek indarrean jarraituko dute, murgiltze eredia orokortu gabe.
- Lege honek hezkuntza sistemak duen **segregazio arazo** larriari aurre egiteko proposatzen dituen **neurriak alferrikakoak** dira, ez duelako arazoaren sustraira jotzen.
- **Lege honek merkatuaren logikan sartzen ditu ikastetxe guztiak**, eskolen arteko lehia proposatuz, programa kontratuen bidez, publikaren kalterako.
- **Lege honek ez du hezkuntza laikoa bermatzen.** Hainbat ikastetxek doktrinatzan jarraituko dute.

Honengatik guztiagatik, argi eta garbi adierazi nahi diogu **gure ezezkoa Hezkuntza Lege honi**.

Honen aurrean, Euskal eskola publikoaren defentsan ari garenok, sistema justuago bat aldarrikatzen dugu, diru publikoaren erabilera zentzuzkoa eskatuz. Guk bestelako hezkuntza sistema bat nahi dugu, eskola publikoa benetan erdigunean jarriko duena, gizarte kohesioa eta berdintasuna bultzatuko duen eskola publiko euskalduna.

Dei egiten diegu legearen alde dauden alderdiei, bertan behera utz dezaten sare pribatuko ikastetxeen pribilegioak mantendu nahi dituen eta sare publikoa bazter uzten duen lege-proiektu hau.

Ikasturte honen hasieran, euskal eskola publikoaren aldeko milaka lagunek Bilboko kaleetan barrena adierazi genuen gure desadostasuna. Gaur hemen eta aurrerantzean ere kalean jarraituko dugu.

Eskola Publikoak inoiz jasoko duen **eraso handienaren aurrean** ozen aldarrikatu nahi dugu:

LEGE PRIBATIZATZAILE HONI EZ!
ESKOLA PUBLIKOA, BAKARRA, EUSKALDUNA ETA LAIKOA!
GORA EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA!
EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAZ HARRO!!!

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAZ HARRO TOPAGUNEA